

Mozioa, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalen arteko elkarrizketa-gune bat sortzeari buruz

Zioen azalpena:

Joan den maiatzaren 14an, Eudeleko Batzorde Exekutiboak proposamen bat egin zuen Foru Aldundiak eta lurralde historiko bakoitzeko Udalek osatutako elkarrizketa-gune edo Erakundearteko Mahai bat sortzeko eta artikulatzeko.

COVID-19ren pandemiaren ondorioz bizi dugun salbuespenezko egoerak euskal ogasunen diru-sarrerara fiskalei zuzenean eragiten ari zaie, Euskadiko enpresetako eta familietako ekonomian duten eraginagatik.

Alarma-egoeran hartutako erabakiak eragin zuzena izan dute erakundeetako diru-sarrerara fiskaletan, baita udaletxeetan ere; izan ere, zerga itunduetan duten partaidetzan ez ezik, haien ordenantza fiskaletako diru-sarreretan ere murrizketak izango dituzte, osasun-krisiak, krisi ekonomikoa eragin baitu.

Joan den 2020ko maiatzaren 12an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 3/2020 Foru Dekretu-Araua onartu zuen. Horren bidez, aldatu egin dira Udalak Finantzatzeko Foru Funtsak 2020an kontura egindako entregak, eta aurrekontu- eta zerga-arloko hainbat neurri ezarri dira, toki-erakundeek erabaki-modu handiagoa izan dezaten kreditu gehigarriak onartzean, bai eta COVID19ak eragindako egoerari aurre egiteko tasen hobariak egin ahal izateko ere.

Maiatzaren 15ean, Gipuzkoako Finantzen Lurralde Kontseiluak 3/2020 Foru Dekretu-Araua aztertu zuen, bai eta horrek udal-finantzetan dituen ondorioak ere, Gipuzkoako udalen Udal Finantzaketarako Funtsaren bidez.

Gaur egun, inoiz baino gehiago, erakundeen arteko elkarrizketa beharrezkoa da pandemia honi modu koordinatu eta eraginkorrean erantzuteko.

Horregatik, Eudeleko Batzorde Eragilean jorratutakoa mahaigaineratu da, eta erabaki hauek hartzea proposatu da:

Mozioa

1. Eskatzea Gipuzkoan elkarrizketarako mahai instituzional bat sor dadila Foru Aldundiaren eta EUDELeko Gipuzkoako Lurralde Batzordearen artean, lurralde-eremu instituzionaletatik krisiari erantzuten dioten ekimenetan koordinazioa bultzatzeko, lankidetzara eraginkorra garatuz, eta herritarrentzat erakundeen arteko gobernantza hobea lortzeko.

2. 3/2020 Foru Dekretu Arauak Finantzen Lurralde Kontseilua aipatzen du azaroko kuota jorratu eta aztertzeko. Hala ere, euskal erakundeen arteko finantza-harremanak arautzen dituzten oinarriak ikusirik, eta kontutan hartuta krisialdiaren intentsitatea eta arrisku partekatua printzipioa, inoiz baino gehiago beharrezkoa da, egoera ekonomikoari, diru-bilketaren aurreikuspeni eta udalen egoerari buruzko informazioa partekatzea. Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen diogu Finantzen Lurralde Kontseilua hiru hilean behin deitzeko.

Tolosa, 2020ko maiatzaren 22a.

EAJ-PNV bozeramailea



Joseba Koldo Ormazabal Lopez

PSE-PSOeko bozeramailea



Jose Mª Villanueva Tellería
